

FRANÇOIS SUREAU

ZURRUNBIDEA*

Itzultzailea
Maite Berrogain Ithurbide



Jatorrizko izenburua: Le chemin des morts
© François Sureau
© Gallimard
© Euskaraz: Utriusque Vasconiae
© Euskal izulpena: Maite Berrogain Ithurbide
Lehen argitaraldia: Donostia, 2015eko azaroa
ISBN: 978-84-944061-2-6
Lege-gordailua: SS-1173-2015
Diseinua eta maketazioa: P.I.A.
Azaleko irudia: Ramiro Arrue

UTRIUSQUE VASCONIAE -
Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433
Iparraldean: 0033547640386

Banatzailea:
BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239
JAKIN - 64100 Baiona (Lapurdi)
TEL.: 0033559592232

[https://sites.google.com/a/utriusque.com/
utriusque-vasconiae/](https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/)

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

FRANÇOIS SUREAU

ZURRUNBIDEA*

Itzultzailea
Maite Berrogain Ithurbide

Utriusque Vasconiae

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailaren diru-laguntza jaso du*

*Zurrunbidea: gaurko hiztegian izen arrotza kausitzen dugu. Alta hiztegi zaharretan begiratzen badugu hala nola Aita Lhande zuberotarraren hiztegia, hau adierazten du: *chemin par où passe le cadavre que l'on porte en terre.*

Zurruna: *cadavre.*

*Philippe Bissara-ren
oroitzapenetan*

*(A la mémoire de Philippe
Bissara)*

Laurogeiko urteak urrun dira eta iduritzen zait gerla antzekoak zirela, baina ez egiazko gerla, baizik eta borrokarik gabeko gerla bat. Bizi izan dituztenak gaurregun galduak senditzen dira munduan zehar.

1983an, doi doia sartua nintzen Estatuko Kontseiluan bigarren mailako aditzaile bezala. Hogeitabost urte ez nintuen oraino eta loriatu nintzen legegizonen artean jarri-rik egoteaz zeren eta haien lanek txunditua neukaten, nire ikasle gazte denboran. Zeruraino iritsia nintzen Laroque eta Bouffandeau presidenteen ondoan egoteagatik, azken hau Segurantza Sozialaren

asmatzailea zelarik, eta administra-
tzaile auzien berritzailea bigarrena.
Ene biblia izan zen Lebon bildu-
man agertzen diren pertsonaietatik
bat bilakatu nintzen eta egiazki hala
da, nun mundua eta haren okerrak
zuzenbidearen bitartez zuzentzen
baitira. Gogoz nekizkien *Dames
Dol et Laurent* idatziak nun Breste-
ko portuan galdutako bi nezkatilak
salbuespen egoeren teoria erditua
duten. *Lemonnier*-en erabakiaz Leon
Blum-en ondorioak osorik gogoz
ematen ahal nituen. Hiru aldiz ga-
raile izanik *Bac Eloka* jaso nuen.
Laster nire izena mahain hauetan
laburzki idatzia izanen nuela, mili-
tar esaldietan bezala, uste nuen: X,
berriemaile (rapporteur); Y, c.du.g.
(commissaire du Gouvernement).
Gaineko aldean «saila» edo «biltza-

rra» bezalako hitzek argiki erakutsiko dute nolako garrantzia zuten epaitu behar izan nituen gaiak.

Palais-Royaleko edantokian, Comédie-Française-ren auzoan, isilik gelditzen nintzen, ene kafearen aitzinean, ene adineko gazteekin. Adinekoak denak ziren ongi ikasiak, eta atseginak. Ez zuten erakusten 1940ko urteetan kanporatuak izan zirenik, juduak zirelako, Pétain marexalaren bulegoetako azken buruzagiekin elkarrizketetan aritzeagatik, RAF-eko azken piloto, Komunista ministroen gordezko inspiratzaile, edo Argelia frantsesaren aldeko amorratu izateagatik. Ez zen iragana aipatzen hau botata zuten zilo batetara.

Bizi nintzen egoitza ttipi batean, leihoeak ematen zuten Hô-

tel-de-Ville-ko plazara. Ikusi ditut nola plaza arras itsusten zuten untzi handi batzuk eraiki zituztenean, Ukrainian bezala. Ene bizia bikoitza zen: egunaz, zuzenbidea, zintzotasuna, misterioak eta gero gauaz bizi harroa, alaia. Ez nuen deusetaz bildurrik. Gobernuaren barnean ziren estaliniar zahar batzuei esker irradi libroak onartuak ziren eta enzuten nituen. Ene lehen txostenak *Percy Sledgeren* konpanian musika zarratatsu mexikarrarekin idazten nituen. *Jacques Vabre* kafearen telebistako publizitateak laguntzen zion eta oraino egun xuxurlatzea gertatzen zait.

Laurogeiko urteak bi munduren artekoak ziren eta ni ere. Ezker aldean egoten ginen lagunen artean bederen baina aldi berean janzen

genituen austriar ator barregarri batzuk leporik gabekoak iduriz Berchtesgadenerko biltegi batetatik zetozenak eta oporretan ziren militanteei *heideggerren* itxura ematen zietenak.

Bizian bezala Estatu Kontseiluan, tenor zaharrak ez ziren desagertu, leheneko boz ozenek antzezle batzu bezala ez zuten antzokia utzi: komunista adimentsuak, mota guzietako errabiatuak, Gaulismatik atera ziren prefeta diktadoreak, Bir Hakeimeko ohiak, Brejneven adiskideak, Marchais Messmeren aitzinean. Baina ministro batzu doi doia ziren ni baino zaharrago, Atlantikatik haize handi bat heldu zen, paper beltzaranez troxatuzko hornidurak zekarzten, kokaina, miseriari axolagabetasuna, las-

ter joaiteko gogoia, eta diru ainitz irabazteko xedea, alegia. Frantziako zaldimaldikoa itzulikatzen zen berrogeitahamar urte haietan, zurezko zaldi akitu batzuekin, buruak zituztelarik ihardukitzaile, kolaboratzaile, gendarma edo troskista: orain jaisten ahal ginen eta abentura hasi.

Laster ohartu nintzen nekez aurkituko nuela *Palais-Royal*-en. Sei hilabeteren buruan utzi nuen. Izendatua izan nintzen azpiko sail batean txostengile bezala, kolonietan egon zen kudeatzaile bat zen buru eta bildu zituen inork nahi ez zituen txostenak. Hala nola askatasun publikoei loturriko auzi handiak, hor nire ardura zen base-ri munduko lurren antolaketa eta Arjeliatik etorri ziren aberriratu- kalte ordainen ordaintzea hogeita-

hamar urteren buruan. Idazkari nagusiak eskaini zidalarik lan aldaketa errefuxiatuen edo iheslarien batzordean, gogo onez onartu nuen jakin gabe zer zen zuzen.

Iduriz jende gutti zen lan honen hartzeko eta hoberenek –ni ez nintzen horietarik– gogoz kontrako ofizioa aurkitzen zuten eta arrazonomendu ederren egiteko ez egokia. Geriza eskatzaile bat heldu denean Frantziarat, galdegiten dizkio errefuxiatu paperak Frantziako errefuxiatu estatugabeko batzordeari eta honek eza ematen badu dei egin lezaioke errekurtsu batzordeari. Orokorki enbaxadore ohi baztertu batek zuen kudeatzen, bulegoa administrazio txarrenetatik bat zen, galde egileek doi doia errezebituak ziren eta erabakiak hartuak ziren

txostenak eskaler baten mailetan botako baliren bezala. Batzordeak lana ongi eramaten zuen. Erabaki baten ondotik izena aldatu zioten eta orai babes eskubidearen korte nazionala deitzen da baina printzipioan berdin gelditu da. Justizia eremu bat da sailetan zatikatua. Sail bakoitzak hiru epaile ditu horietarik bat Nazio Batuen iheslarien aldeko komisario handiak izendatua da. Txostenegileak txostenak apailatzen ditu eta batzar publikoan bere iritzia ematen du galdegileei hitza eman aitzin.

Denbora haietan arras xumeki egiten zen. Orduan bi mila edo hiru mila galde egile ziren eta egun hogeitahamar mila baino gehiago dira. Batzordeak hiru sail zituen eta egun ehun bat dira. Epaileak eta

txostenegileak ari ziren muxu truk eta heldu ziren beste administrazio eremu batzuetatik eta ez egun bezala epaitegietatik zeinentzat larru beltza duten, denak oilo ebazleak edo lapurrak direlarik. Txosten egileak parte hartzen zuen epaiketan. Lehendakaria edo presidenta eta txostenegilea bi pertsonai nagusiak ziren eta elgarrekin lan egiten zuten eta ados jartzen ziren erabakia hartzeko.

Nire saileko lehendakaria deitzen zen Georges Dreyfus. Batzordeko lehendakaria zen aldi berean. Hau biltzen zen *Verrerie* karrikan, ene etxetik hurbil, *Marais* aldeko egoitza zahar batean doi bat arraberritua baina ez egokia, zaharkitua. Iheslariak zain egoten ziren aulki higitu batzuetan jarririk. Ez

zen poliziarik ezta ere zaintzale berezirik bertan.

Georges Dreyfus ikusten nuen zahartuta. Nik egun dutan ber adi-na izanen zuen. Gizon luze mehea, bilo lodi zuriekin, zuzen atxikitzen zen, traje grisa neguan eta gorraila udan, frantsez goi mailakoek bezala botoi zuloan Legionaren ohorezko medalla ekartzen zuen. Aski berant sartu zen Estatuko Kontseiluan lehenago kolonietako administrazioan zen. Nire ustez Kamerunen buruzagi izan zen frantsez Afrika Ekuador aldeko azken gobernadorea. Bazuen holako ospe itxura bainan ez zen harro. Beti apal, garbi, zuzen; adimentsua eta ardura urrikaltsuduna. Beste lankideek ez bezala uzten zituen luzaz mintzatzan iheslariak auzitegian, ez zuen

erakusten ezinegona, gizonki galderak egiten zituen, iduriz eta iritziz azken unera arte aldatu zitekeela erakutsiz. Zorigaitzeko hauek ez zuten uzten haien herria tortura ageri batekin sakelan non agertzen zen gaizki erabiliak izan zirela eta heriotz arriskua zutela. Horien kontaktak zuen balio. Zentzu handia behar zen. Batzuk ez dute egia eraiten eta nahiago dute alegi batzu kontatu, lagun batek erran bezala, segurtamena lortzeko. Beste batzuk itxura txarra erakusten zuten boz ozen batekin mintzatuz ustez eta hunkigarria izanez, kontaketa xumeago eta zuzenago batek epaileak hunkiko zituela.

Georges Dreyfus guttitan tronpatzen zen. Honek ere frantsez herritartasuna galdu bait zuen 1940an

Londresen ikasketak egiten izanki, sartu bait zen *Forces françaises libres*-etan. Segitu zuen Leclerc, de Koufra Estrasburgen eta Berchtesgadenen. Ez zen deusetaz harritzen batzutan gaizki erranak izan arren, erabaki hartzeagatik, tiroketa bat entzuna, ez zitzaion arrotz egiten. Gizona miresten nuen. Harrek ere estimatzen zitzaidan nahizeta ez zuen agertzen bere aitatasun aldea. Laster lortu genduen hitz egin beharrik gabe elgar ulertzea.

Lan hau ainitz gustatzen zitzaidan. Baserri munduko lur berrantolaketak edo Ipar Afrikatik sartu ziren, zango beltzei, kalte ordainak banatzeak, ez zuten nik nuen zuzenbidearekiko atxikimendua desegin: zuzenbidea maite nuen eta bazen zerbait berria zena nerezat

eta aski trajikoa zuzenbide hortan. Ez zen ondoriotasunik zuzentzeko, hitzarmen bat idazteko, edo hamar urteren buruko erabaki baten epaitzea, etxe bat eraikitzeko baimena ikuskatzea. Historiaren aizea iragaiten zen artikuluen artetik. Begiratzen nuen, behatzen nuen zuharki Georges Dreyfus. Orain uste dut Dreyfus aintz arduratzen zela bere lanean. Iduritzen zait, uste dut, axolagabekeria zela harrentzat huts bakarra. Iduritzen zitzaien, uste dut, ezaxolakeriak, eta ez gaizkiak, hautsiak zituela haren aitzinean agertzen ziren emazte eta gizonak. Gizon eta emazte galdu hauen aitzinean bazen Dreyfus jaun buru belarri behatzen zituena. Nire buruari nion doaie iraganean berak edo bere familiak jasan zi-

tuela holako gertakariak. Horrek ez zion kentzen, bere ikusmoldea egin ondoren, hizkuntza eta zuzenbidearen estiloa maestria handiz eta tresna bereziak erabiliz egitea, eta epailearen eta gizakiaren tragedian tartea ahal bezain urrun atxikitzea. Eta horiei esker Bengalan geratutako tren hondamendiaren deskribapenak irudiko luke auzo pobreako etxettoaren arbatzen pean emandako bi miniatura trenen arteko talka.

Ez nuen berriz ikusi. Jakin nuen Nizan bizi zela zahar aroan bere emazte laguntzailearekin. Aldi batez ikusi nuen haren etxean, arratsalde batez, Sevres hirian, txostenak eramatera joan nintzelarik. Bakarrik bizi zen *Art Déco* etxe eder batean eta arratsaldetan iduzkiak portzelanazko pertsonai bildumak jotzen

zituen. Pareta ganean bi taula zeuden horietarik bat *Caillebotten*-en kopia eta besterik ez. Matelak gorri gorriak zituen emazte lodi bat zen eta soa bizi bizia zuen. Estrasburgen elkar ezagutu zuten 1944an. Hilabeteko lehen egun guziz moskortzen zen romarekin, eta taulak eta portzelanazko pertsonaiak lekuz aldatzen zituen eta oihuka ari zen erranez bere maisuak egindako ibilbidea nolakoa izan zen eta ondotik biziak segitzen zuen.

* * *

1982. urte hastapenean, islamista iraultzaren ondotik ihes egin zuten Iraniako politikariak epaitu genituen. OFPRAk gehienak onartu zituen iheslari bezala, salbu SAVAK-eko kide zaharrak, Shah-ren

polizia gizon politikoak. Georges Dreyfusek txostenak begiratu zituen eta nik bildumak egin nituen. Oroitzen niz delako Quai D'Orsay-k presioa jarri zuela ahal bezain ongi tratatzeko bulego hortan lan egiten zuten armadako aitzindariak, denek frantsesa bazakiten eta gainera giza eskubideen alde den herriak ohoratu zituen. Aldiz, galdegiten ziguten ahal bezain gogor egiteko Evin presondegiko sotoan tortura, erabili zutenei. Dreyfus-ek ez zuen hola ulertzen. Estatuko Kontseiluak 1946 eta 1947an hartutako erabaki txostenekin jardun zen. Ezker aldeko orrian, Drancy gendarmeriako generalaren kasua zegoen: absoluzioa. Eskuin aldekoan juduez beteak ziren trenak eramane zituen gendarmearena: kondenatua.

SAVAKeko zaharrei, gradorik gabe Genevako hitzarmenak adierazten duen klausula ezarri zitzaien: ezin zutela zuzenik eskatu, eurek bortxatu baitzituzten boterean zirenean.

* * *

Gero egon naiz hilabete batzuk lan arrunta egiten hala nola Sri Lankako Tamoulak, Zaire edo Tchadetik etortzen zirenen txostenak aztertzen. Arrats batez, Dreyfusek eskatzen dit erabaki luze baten ondotik, elgarrekin garagardo bat hartzeko azpian zen tabernan. Uda-berri hastapena zen. Dreyfusek hitzak xekutzen zituen, ohikoa ez zitzaien moduan. Luzaz hitz egin zidan auzoaz, Nicolas Famelen etxeaz, Andre Bretonek Saint-Jacques dorrearen zat zuen atxikimenduaz.

Lehen aldia zen literatura aipatzen zuela eta bereziki surrealismoa, neri ainitz gustatzen zitzaidana. Gero bat batean galdegiten dit ea Euskal Herria ezagutzen nuenez. Ez nuen bat ere ezagutzen, ez frantziako aldean ezta ere espainiakoa. Banuen iritzi bat abertzaleen mugimenduaz, frankismoaren aurkako borrokarena. Oroitzen nintzen denek bezala Francoren ondokoa izan behar zuen Carrero Blancoz, haren autoa etxean gainerik altxatua izan zelako zartagailuak sobera azkar eman ziolako. Irakurri nuen egunkarietan Giscard d'Estaing-ek Frantzian bizi ziren espainiakoa eskualdunei iheslari paperak kenduko zizkiela Espainia demokrazia bilakatu zelako, eta estakurik ez zelako Euskaldunak Frantzian babesten jarraitzeko lehen bezala.

«Presezki dio Georges Dreyfus-ek: euskaldun gehienak gure auzitegitan aurkeztu dira. Hogei bat dei izan dira gure bulegoetan eta aztertuko ditugu».

Haren botzak adierazen zuen arabera erran nion zailtasuna ez nuela ongi ikusten nun zen. Nola erakuts genezaioke Espainiari zuzenbidea kudeatzeko manera. Honen itzuli nahi duenean zuzenbide egoerara.

Erran zuen «Errekurtsoak irakur itzazu eta berriz hitz egingen dugu». Egia erraiteko ez genituen batere berriz aipatu epaiak aitzin, beste kasuetan egiten genuenaren aurka jokatzuz.

Denbora haietan, jurisprudenziak onartzen zuen bakarra zen,

Estatu batek gaizki erabiltzeagatik iheslari batek eskura zezakeen estatutua. Garai hartan etzen onartzen Estatu batek isilpean lagun zezakeen elkarte ilun baten mehatxurik edo Estatu bat gizaki edo emazteki mehatxuak babesteko ez gai izan zitekeenik. Zuzenbideko legeak argiak ziren. Banekien nolako zorrotasuna atxiki behar zen eta ez nuen ihes egiten ahal. Iduritzen zitzaidan Georges Dreyfus sendiberatasun izango zela, hainbeste atxikia zen gizakien zuzenari, eta gure artean ezaxolakeria sor zezakenaren begirale izango zela honi uko egiteko.

Egun hortan, ez zuen deus erran zailtasun hortaz, legegizonek dioten bezala. Egon ginen luzaz zigarreta erretzen eta edaten tabernan. Dreyfusek Euskal Herria ixuratu zitzai-

dan. Ontsa ezagutzen zuen. Berant arte egon ginen eta doluz bezala ba-koitza gure alde joan ginen. Biha-ramunean euskaldunen txostenak hartu nituen eta nire etxerat eraman nituen. Ez nituen berehala ideki. Beste lan bat bainuen bururatzeko Pompidou zentroaren eraikizaleen ardura noren gain eman paretak puskaka desegiten zirelako. Gero, txostenak irakurri aitzin nahi nuen gehiago jakin. Beti hola egiten nuen, memoriak aztertu aitzin, nazioarteko Gida Urdinak bezala irakurtzen nituen, herrialde horie-tara sekulan joango ez banintzen ere, baina onartuz ametsetako mu-gimendugabeko bidaia, beldurrez-ko goibela sortuz. Memoria hauen irakurtzea zen beti latza. Asmatzen nituen bizi batzu nahizeta ezin uler-

tuak ziren nirezat, beldur batekin edo sobera edo ez aski asmatzen nuenez eta min egiten zitzaidan sartu behar zirela zuzenbideko sailkapenetan. Nere lanbidea zen eta lan hori maite nuen.

* * *

Gure lantokiko alde batean arraberritzeko lanetan ari ziren, dokumentazio gunea tokiz aldatu zuten Diderot bulebarrerat, Finantziatoko administrazioko etxe handi bateraino. Joan nintzen, maiztza bukaeran baina lehenago eman nuen ikastaldi bat Ikasketa politiko Institutuan eta hor ene ikasleek seriooki galdegin zuten giza esku-bideek bazutenez edo behar zutenez izan balore unibertsala. Urte horietako izpiritua zen. Airean elektri-

zitatea bazen, erran dutan bezala, dirua, bakarkako indarrak, lege zaharrak baina mundua ez zen jarri mugimenduan. Berantago eginen zen Yugoslabian. Berlineko harresia beti hor zen. Denbora heietan ene lankideen edo ikasleen iritziak bortitzak ziren eta debaldekoak, Frantzia ardura ohi denez.

Gure behineko dokumentazio gunea utzi nuen seietan, gogoa nuen ardo xuria limonarekin harze-ko nire etxerat joan aitzin, zeren eta inor ez zen nire zain, euskaldunen txostenak ideki aitzin. Taberna batek izkina egiten zuen etorbidea eta kaiaren artean, eta deitzen zen *Café de l'Institut*, ez akademiarengatik baina hurbil zen hiletxearengatik. Ostatu zahar bat zen gerla aitzineko kafe makinak eta hor bezeroak

eta zerbitzalariak elgar iduri zuten. Duela hilabete batzu hortik iragan nintzen ikusi dut desargertu zela, eta haren ordezt gaur xinako janari saltoki bat dago.

Jendea bazen tabernan. Jarri-rik, bi gizon korputzez handi eta aurpegiz auzitegiko epaiak iduri eta bikote zahar bat doluminetan nigarrez gorputz baten ikustera etorriak.

Ikusgarria tabernan zen eta hor gizon zahar bat soineko xuri batekin, mehe eta maltzurki mintzo zen medikuntzan ziren ikasleen erdian. Ongi ulertu banuen, kirurgilari geiak etortzen ziren harat eta trebatzen ziren hilik ziren korputz ezezagun batzuekin. Zaharrak lehengaia ekartzen zuen. Egun hortan trebatu ziren uretan ito zen gi-

zon baten korputzarekin doi doia uretik ateratua eta sare handi batek atxikitzen zituen gorputz zatiak. Bi gaztek ezagutza galdu zuten. Gizon zaharra irriz ari zen belaunaldi gazte hortaz, bere gerlako oroitzapenak aipatzen zituen. Harro zen gazte denboran, sasitarra zenean, alemanen autoei eraso egiteagatik, xistera batean botatuz leher gailuak, euskalduna zelako. Nahiz eta ez zuen alkolik edaten ele handiz mintzo zen moskorra balitz bezala. Publikoa zen liluratua eta trabatua ere.

Oroitzen naiz hurbildu nintzela entzun nuelarik euskaldun hitza, harrিতua aldiberekotasunaz zeren eta bere jatorriaz mintzo zen, eta denbora heietan inor ez zen hola hitz egiten. Gaur ez da egun bat ere pasatzen entzun gabe bretoin,

kabile, musulmano edo melkite harro ez denik. Orduko urteetan bere jatorria aitortzen zuena inoxoa eta gaitzetsia zen. Nire lagunek eta nihaurrek erroen zozotasuna gutxiezten genituen.

Oren batez, Orreagaz mintzatu da eta alegiazko borroka hartaz, Donibane Garazi eta taloak aipatu zituen. Publikoa ari zen emeki emeki ttipitzen. Epaileak eta familia joan ziren. Bakarrik lau gelditu ginen jarriak mahain baten inguruan. Bat batean erraiten dit «Zuk ez duzu mediku baten burua» susmoz beteta. Erantzun nion epaile nintzela –sinpleago zen horren erraitea– sorbaldak altxatu zituen. Iragan da epaileetatik hilketetara, hilketetatik zurrunetara eta zurrunetatik herioztetara. Gero, ozenki mintzatu zen

eta kontatu digu zer zen zurrunbidea. Euskal Herrian etxea da denen erdigunea. Gizonak eta emazteak biek kudeatzen dute berdin. Biek dute ber duintasuna eta heien ize-nak etxe atarian zizelkatuak dira bata bestearen ondoan. Etxeko nor-bait hiltzen denean, eramaten da etxetik hilerriraino bide berezi bat hartuz eta zurrunbidea bezala eza-guna dena, alegia. Etxe bakoitzak eta familia bakoitzak badu berea. Ez dira nahasten. Elizaren gaineko aldean dago sare bat beste bide batzuekin, ez dira ikusten edo bideen-gainetik edo xendren artetik, eta eliza erdigunean aurkitzen da.

Berantago Euskal Herriko elizak bisitatu ditut. Barneko isiltasun sakona, lasaitasuna, errautsaren, argizagi edo ezko hotzaren

eta intsentsuaren usainak gustatu zaizkit. Iduri dute itxas untzi batzu itzuliak, haien zurezko galeriekin goiti joaiten direnak pareta xurien artean. Iduritu zitzaidan pausatu nintzela goxoki, arrenkurarik gabe.

Agurea altxatu zen bat batean eta joan zen hiletxera, ikasleak desagertu ziren eta bakarrik gelditu nintzen amets egiten. Oinez joan nintzen etxerat, inguruka eginez itzuli batzuk, ibili nintzen orenak Breton-en eta Flamel-en Parisen, Jakobe dorrearen ondoan. Nahiko nuen denbora gelditu. Hamar aldiz pasatu naiz dei batzordearen leiho aitzinetik. Etxerat sartu nintzen goizeko azkorrian, *Nadja* berriz irakurri nuen, eta gero lokartu nintzen eguerdi arte. Berriz joan nintzen Musidoraren arropa ikuste-

ra zinematekara, gero entzun nuen neskame geleetan Sebastopol etorbidean errumaniako arrabit joilea Ceaucescu-n aztaparretatik doi doia ihes egina eta zinez trebetasun handia zuena. Euskaldunen txostenak zain gelditu ziren mahainaren gainean. Ez nuen gogorik idekitzeko.

* * *

Azkenean ideki nituen hiru egun epaiketa aitzin. Gelditu gabe lan egin nuen bi egunez eta bi gauez audientziaren bezpera arte.

Maiatzean ginen. Sasoi aldaketa zen: neguko azken aizeak gaztainondo hosto lodiak inarosten zituen eta hortik usaintzen ziren erregailua eta bideko gudroina hauek bait dira Pariseko udaberriko usainak.

Txosten bakoitzarentzat lau bost oren pasatu nintuen, ez gehiago, eta beste bat hartu aitzin zigarreta bat erretzen nuen, idekia zen leiho aitzinean eta hortik ur untzietako murmurika entzuten nuen.

Adiskide bat etorri zen goiztarian eta biak joan ginen askariaren hartzera merkatu alderat. Elkarrekin zuzenbidea ikasi ginuen. Nola ez zen aski adimentsu erretorika ikasteko kasik huts egin zituen administrazioko leihaketa guziak. Gelditzen zitzakion Frantziako Bankuarena eta poliziako komisarioarena. Baztertu zuen lehena, hilgarria iduritzen zitzakion eta bigarrena hautatu zuen. Nik hautu hori higuingarria kausitzen nuen.

Ene laguna Grigorenko deitzen zen. Haren aitak Ukrainatik ihes

egin zuen gerla aitzin, zeren eta juduen alde jarri baitzen Petliourako Kosakoek jazarririk, mutil gazte bat zelarik orduan.

Senideek ongi egin zuten Franziarat igorri bait zuten ikasketak egitera eta horrela suerte txarra saihestu bait zuen. Argazki egile bilakatu zen, Limoges-en eta berantago Guigouineko FTP sasieta ezagutu zuena, ezkondu zen neskatilla batekin, eta geroztik bere izena famatua da. Ez zen sekulan berriz itzuli Ukraniara.

Grigorenkok eleberriak eta xehetasunen izpiritua maite zituen. Beharba polizia lanbideari lotzeko baliteke ipuin ilun batean igeri egiteko- taigabe Simenon, Chevalier-en *Les Histoires de la vie parisienne*, irakurtzen zituen, auzitegi-

ko bildumak, Géo London-etik Théolleyre-raino, eta egunkarietan agertzen diren gertakizun desberdinak. Batetik hogeitaz artekotako notak ematen zizkien kazetariei hilketak idazteagatik literatura erduetan. Haren begia gizaki ilunaren artetik argitzen zen eta bere boza altxatzen zuen batzutan irriz «Hala ere nolako gaizki egilea den! Eta polizia gizona bigoteduna! A nolako sinfonia daukaten zapata iltzedunak!». Haren jakitateak ziren zabalak bezain bitxiak.

Euskaldunen txostenak aipatu nizkion. Erran zidan Baionako karraketan aurkitu zituztela gazte batzuen gorputzak, duela hilabete batzuk, erahilak, doaike lehengo polizia frankisten sareetako gizonen hilik. Ez nion sobera kasurik egin

erran zidanari. Nahiz eta gizon argia zen baina azpijokoak gehiegi gustatzen zitzaizkion. Gero gehiago jakin nahi zuen eman dezagun euskaldunek zer eskatzen zuten, zein ziren heien istoriak. Ideia orokorrekin ez zen fidatzen. Erantzun nion zuzenbideak erakusten didan bezala. Goibeldurrarekin begiratu zidan eta bakoitza gure aldetik joan ginen. Nire etxean sartu nintzelarik, azken begirada eman nien ene txostenei.

* * *

Txosten gehienak euren pisuz erortzen ziren, hola mintzo ginen. Galdera egile gehienak Frantziatik joanak ziren Hego Ameriketara eta errekurtsua egin zuten hala beharrez. Beste batzuk frantsez bilaka-

tuak ziren aterbe administrazioak jakin gabe eta horrela ez zuten erantzun beharrik, badaezpada galdetzen baitzuten. Gutti gelditzen ziren. Gehienak oinarrizko militanteak ziren, ezezagunak, eta errekurtsioa galtzen baldin bazuten ere, Frantzian geldituko ziren, sasitar bezala, egun batez itxaropenarekin prefektura batenganik paperak lortuko zituztela, artxibetan galduak balire bezala.

Ibarretegi bestelakoa zen. Zestoan sortua zen, Gipuzkoan, 1940an. Goi mailako ikasketak egin ondoren, letretan, bere herrian maisu egon zen nahiz eta goragoko lanpostua merezi zuen. Abertzalea zen baina are gehiago frankismoaren aurkako zen. Egun oraino azken horregatik da gehienik ezaguna bere

herrian. Ibarategi itzal handiko gizon zuzena eta isila izan zen. ETAn sartu zen eta kargu garrantzitsua eramane zuen erakundean. Kalitate guzi hauengatik ez zuen erori behariko ekintzaile bezala. Halata guztiz, 1968an, parte hartu zuen Meliton Manzanos komisarioaren hilketan. Komisarioa torturazale bezala ezaguna zen. Hipotesi ainitz bazen historia horren baitan. Bat askotan ateratzen dena da Ibarategik maite zuen neskatila militantea polizia horrek torturatzeagatik hil zela.

Polizia atzetik zuela, joan zen 1969an Frantziaruntz, eta hor iheslari estatutua lortu zuen. Han, xumeki bizi izan zen hamar urtez, politikarik egin gabe, bere barnean zerbait hautsi izan balitz bezala. Garage batean lan egin zuen Quim-

per-en, eta azken urte hauetan Pariseko liburutegi batean. Carrero Blanco hil zutenean, 1973an, hitz bat idatzi zuen gaitzesteko, orrialde andana bat agertu ziren ezkutuko ageri batean. Horren ondotik bere lagunek gaizki hartu zuten baita ere ezker muturreko frantsez ki-deek. Besterik gabe: ahaztua zen hainbeste urtez isilpean egonik.

* * *

Auzialdia baino oren bat lehenago iritsi nintzen *Verrerie* karrikara. Aro ederra zen eta atseginez goitioazen kanpoko harrabotsak entzuten nituen leihoak idekiak zirelako. Batzarrean eman behar nituen txostenak laster berriz irakurri nituen.

Geroztik nere buruari galde-
giten diot, kasik egunero, ea bes-
terik idazten ahal nuenez. Espainia
demokrazia bihurtu zen eta gure lu-
rretan ez ginuen gehiago estakuru-
rik atxikitzeko espainiatik etortzen
ziren iheslariak, euskaldunak edo
beste. Administrazioko paperetan
txostenak aurkitu nituen eta bi
ohar orokor baziren bereziki, hau
erraiten zutenak beti bazirela talde
mafioso, aktiboak zirenak. Iduritu
zitzaidan hauek zirela ustezkoak
eta ez egiazkoak frogarik gabekoak.
Idatziak ziren interesik gabeko ma-
nera batean eta ez zuten oinarririk
zuzenbidearen arrazoinamenduan.
Genevako hitzarmenak jazarpenak
aipatzen dituelarik, biktimak ihes-
lari estatutua lortzeko Estatua zuzen-
nean arduradun izan dadila eskatzen

du. Garai haietan printzipio zen hori, auziz auzi aldi guziz Estatuako Kontseiluak errepikatzen zuena, goi mailako auzitegiak bere egin zuen. Orduan frogarik ez ginuen batere nun Espainiako Estatuak isilpean armak ematen zizkiela gaizkiegile batzuei; alta, hauek idatziak ziren gure administrazioko oharretan eta inpunitatea zuten. Auzitegi batean justiziaren erabaki bat frogarik gabe idaztea, ezinezkoa zen.

Epaile batek ebazpen bat onartzen duelarik ardura harentzat da alderantzizko erabaki bat ezinezkoa dela, besterik gabe. Ibarategi salbatzeko –orduan ene gogoan zen haren txostena salbatzeko, besterik ez nuen asmatzen ahal– beharko nuen frogarik gabe eta ene intuizioetan bakarrik fidatuz, polizia ekintzei

begira Espainiako Estatua itxuraz bakarririk aldatu zela onartu; frankistak sareek zutela oraino Barne ministeritza menpeko. Ondorioetan beldurtu nintzela? Batere, eta alde batetik hori da okerrena. Ez nuen arriskurik hartzen, eta taldeko beste kideek ere ez, omen intelektuala eta morala galtzea besterik ez zegoen eta epaileek hori dute ororen gainetik beldurra zeren eta hauen ibilbide profesionala traba lezake.

Egia erraiteko ez naiz luzaz egon gai hau aztertzen. Ez dut dudarik ukan. Ez nuelakoz uste boz bakarra nuela epaileen artean; banekien Georges Dreyfus ene erabakien alde jarriko zela eta taldeko beste epaileek berdin egingen zutela. Ene buruari galdegin banion zertarako ez naiz lehenago etorri, beste orduz bezala,

elkarrekin ikus ditzagun gai minberenak, auzialdiaren aitzin bainan ez nuen denborarik galdu honekin. Ez nuen pentsatzen gure erabakiak hain ondorio latzik izango zuenik –Ibarrategi gizartean galduko zela eta ez zela sekulan bere etxerat itzuliko, ihes babesa ukatzen ginuelarik gehienek hola egiten baitzuten– eta orduan gogoan nuena ahalik eta erabaki zuzenena hartzea zen.

Georges Dreyfus tenorean etorri zen, beti bezala erne eta alegera. Gaiak zailak zirelarik oren erdi bat hartzen ginuen auzialdia aitzin gogetatzeko. Nik aurkeztuko nuenaren jakinean zen. Nerekin ez mintzatzea lehenago, erran nahi zuen ados zela. Bertako idazkariak mahain gainean txostenak pausatu zituen. Deitzen zen Meryem Shi-

razi, berrogei bat urte zituen eta erraiten zuena ez zen debaldekoa izaten. Bere txostenak ongi emanak ziren eta beti kasu handia erakusten zuen iheslarien galderekiko, nahiz eta batzuk korapilotsuak izan.

Epailekideak jarri dira, presidentaren eskuinean eta ezker aldean. Nazio batuetako iheslarien goi mailako epailekidea emazte lodi gaizto eta larderiaduna zen, azken hogeita bost lan urteak hika mikaka bulegoetan iraganak zituen. Baliteke izan zela ederra eta bihotzduna. Administrazioak izendatu zuen beste epailekidea zen diplomata ohia zen eta haren epaiketa emateko manera oso bitxia eta ustegabekoa ohi zen erdialdeko Asiaren gaiak bakarrik hunkitzen zuelarik. Beharrik alde hortako iheslariak gutti zirela.

Epailekideek ez zuten deus erraitekorik izan azkenean.

Gela hutsa zen, publikorik gabe goizeko tenore hartan. Xabier Ibarrategi bakarrik sartu zen. Abokatarik ez zuen eta zutik egon zen zurezko mahain xuriaren aitzinean, epaileen tauladaren azpian, jartzeko baimenaren zain.

Georges Dreyfus-ek «exeri mesedez» erran zuen. Ibarrategi jarri zen, eskuak mahainaren gainean pausatuak zirrarik erakutsi gabe. Berrogeitahamar urteko gizona zen, kostuma zahar gris batekin jantzia, higatua bainan dotorezia handiarekin ekartzen zuena, axolik gabe holako xehetasunetaz. Bilo kiskiratuek korona bezala buruan itzulia egiten zuten kopeta gora atxikiz.

Haren soa zen harrigarria. Begiak berde urlanga kolore larderi lasaia erakusten zuten. Uste dut denek haren barneko taupada berezia senditu zutela. Ez zuen iduri antzerkilaria zenik, efektu bat ekoiztu nahiz edo bere burua defendatu nahiz. Meryem Shirazik luzaz begiratu zuen eta gero gure begiradak kuru-tzatu ziren. Nahi zuen erakutsi zerbait erran nahi zuela Ibarrategiren alde baina bere karguarengatik isilik egon behar izan zen.

Georges Dreyfus-ek luzaz auziaren urratsak adierazi zituen. Ibarrategik burua apaldu du erranez ados zela. Erantzun diolarik presidentari itzultzailerik ez zuela beharrik ohartu ginen haren frantsesa gurea zela, azenturik gabe eta horrek ekarri du egoera berezia ezin

adierazizkoa, denek gure barnetik senditzen ginuena.

Presidentak galdeginik, ohiduren arabera, ene txostena irakurri dut eta azkenean Xabier Ibarategiren eskaria ez dut onartu. Luzaz begiratu nau, haserre eta nardamendu gabe.

Presidentak galdeginik bere oharrak aurkezteko zutitu zen. Bakarrik defendatuko zen. Askotan hola zen denbora haietan.

Zigarreta erretzailearen boz apala eta erlastua zuen –haren eriak tabakak orituak ziren– metalezko mintzoarekin noiztenka. Poliki mintzatu zen duintasunez. Lehenik eskertu du Frantzia gure bitartez hamar urtez babesteagatik. Emendatu du, ezin sumatuzko iro-

niarekin, merezimendua zuela zeren eta administrazioak leporatzen ahal zizkiola egin zituen ekintza bortitzak eta ondorioz Genevako hitzarmenetik kanpo utzi.

Frankismoaren erorketa atseginenez hartu du. Gero isilik egon da eta boz ozenarekin erran du polizia paraleloak beti bizi zirela eta sartzen bazen etxerat erahila izanen zela. Gehitu du erranez ene galderari eza ematen badiozue joanen zela hala ere. Ez naiz Frantzian egonen, zuzenik gabe, beti ihes eginez poliziari, eta gordezka biziz. Joanen zela –ez naiz segur hitz hauek erabili zituela–.

Isildu zenean isiltasun luzea izan zen. Haren hitzak berea egin zuen. Denak hor ginen dudetan. Dena

jokoan den une batzuk dira. Galdera batzu egin dizkiogu. Georges Dreyfusek erran zion xehetasunak emateko zerk beldurtzen zuen. Ororen buru, luzaz politika gaietik hurrun egon zen eta haren txostenean ageri zen. Etzen horregatik jomuga izango. Aspaldiko borroka dela, erantzun dio hiltzerainoko borroka eta inork ez zuela deus ahazten eta ere barkatzen. GALen aitzinekoak deitzen ziren «Gerrilleros del Cristo-rey»

Administrazioak izendatu duen epailekideak espainol gobernuak amnistia hitz emana zuela ohartarazi dio. Sorbaldak altxatu ditu erantzunik eman gabe.

Presidentak galdegin dio ea azken hitza nahi zuenez. Niri begira,

erantzun zuen ez zuela nahi baina hiltzen banaute zuek arduradun izanen zarete. Orai badakit zintzoki mintzatu zela. Baina une hartan esaldi horri bortizki hartu ginuen. Merezi gabeko zarta bat bezala zen. Xantaia morala. Burua apalduz gure aitzinetik atera zen atzera begiratu gabe.

Erabakia laburra eta teknikoa izan zen, bederen hastapenean. Denbora batez bakoitza zuzenbidearen atzean gelditu zen. Auzialdean ez ditugu azaldu gure gogoe-tak. Ibarrategiren azken esaldiak denok hoztu ginuzten.

Presidenta, administrazioak izendatu zuen epailekidea eta ni ginen ukoaren aldekoak. Orduan emazte lodia iheslarien goi-mailako

komisariakoa Ibarategiren alde jarri zen ustegabekoan. Ardura jende xehea laguntzen zuen eta burgesak kanporatzen. Xehetasunak galdegin zituen, bere aitzinean erakusten ziren paperak denak nahasiak zirelako. Esaldiak gaizki erranak ateratzen zituen. GAL taldeak azkarrak zirela. Espainiako barne ministerioko goi kargudunak ez zirela aldatu. Frantzian ere laguntzaileak bazituztela. Baiona ttipian erahil zituzten DSTko berri emaileak eta Frantziako epaileen lana gelditua izan zela holako ezin ikusizko ostopoengatik. Nire lagunak komisario geiak ber gauza erran zidan. Anderrea inarrosita senditu zen ikusizgure duintasun eskasa, behin ere ez ginuen hola ikusi baina ez genekien noren alde zen, poliziaren, milizien,

frankisten ala gure zuzenbidearen zerbitzarien alde. Mintzo zenean ikusi nuen Meryem Shirazik burua higituz erakusten zuela ados zela harekin.

Georges Dreyfus isilik egon zen ixtant batez, emozioa pasatu arte. Gero esaldi laburrez erran zuen, gu lauak ez ginuztela ikusten, udaberriko goiz batez espainiol gobernu demokratiko berria kondenatzen. Ironi hau erabili zuen, beste orduz ez bezala, iduritu zitzaidan ez zuela errexki erabakia hartu. Kasik galdegiteko prest nintzen ea ziur zenez holako erabakiarekin. Lasaitu nintzen nire ber erabakia hartu zuelako eta aldi berean harrিতua nintzen zalantza asmatu nuelako haren baitan. Duda-muda hori ezagutzen nuen eta horregatik nion begirunea

Georges Dreyfys-i. Baina galdegin zidan irakurtzeko landu nuen erabakia eta egin nuen. Presidentak esaldi bat aldatu zuen eta gero denek izenpetu genuen. HCR (Haut Comité aux Réfugiés) Goi mailako iheslarien batzordeko anderearen azpiko ezpaina dardaraz zegoen izenpetu zuenean eta bakoitza gure aldetik joan ginen beste kasu batzu epaitu ondoren. Oroitzen naiz egun hartan iheslari estatutua eman geniola Zaireko bati eta berantago jakin genuen hiru aldiz aurkeztu zela hiru izen desberdinekin batzordean. Dohain handiko aktorea zen zeren eta bere paperak saltzen zizkien herriarrei.

* * *

Ibarrategiren auzialdi hori niretzat azkena izan zen. Erabakia agertu zen hamabost egunen buruan batzordearen sartzean *Verrerie* karrikan. Bi hilabeteko opor aldia eskatu nuen auzitegian zeren eta beranta hartu nuen nire lanean eta ondotik auzitegiko oporrak ziren irailaren erdi arte.

Lehenik itoa nintzen nire txostenetan, ez nuen deus senditu. Aste batzuen buruan, sendimendu berri batek nahasi ninduen. Eragozpen gogorra zen, ahalke bat bezala. Hastapenean ahazten nuen karriketan ibiliz edo liburu bat irakurriz. Gero indar handiagoak egin behar nituen. Udako lehen egunetan zerbaitek lehertzen ninduen jakin gabe zergatik baina berantago ohartu nintzen Xabier Ibarrategirengatik

zela. Aldi batez Palais-Royaletik ateratzean, epaiketa baten ondotik Georges Dreyfus bilatu nuen baina ez zen hor, joana zen probintzietako administrazioko auzitegien ikuskatzera.

Ez nintzen ongi. Pariseko airea ezin arnastukoa zitzaidan. Gau batez, maleta egin nuen eta joan nintzen Ekialdeko geltokiruntz eta hor Istanbulera tren hartu nuen. Belgraden, Zagreben gelditu nintzen. Nahiko nuen Sarajevo ikusi, baina goiz azkorrian tren hartu zenean, geltokia hila zen, euri pean eta beldurra sartu zitzaidan nere barnean. Gelditu nintzen Sofian, Skoplje, eta hortik taxi bat hartu nuen joateko Monastiraino. Bi aste egon nintzen Istanbulen Klodfarer hotelean. Lehen astean

hiria bisitatu nuen. Bigarren astean lo egin nuen, zigarretak erre, eta Robinson Crusoe-ren abenturak irakurtzen. Liburu hau beti nirekin eramaten dut.

Pariserat itzuli nintzenean, jakin gabe zergatik oinez joan nintzen Ekialdeko geltokitik Lyoneko geltokiraino. Aspalditik ez nuen frantsez egunkaririk irakurri eta andana bat erosi nuen saltokian, Diderot bulebarrean. Institutuko tabernaren aitzinean jarri nintzen. Irailaren 5a zen. Lehenik *Libération* hartu nuen, Gromyko sobietarraren bisita irakurri nuen, Libanetik ateratu ziren israeldarrena, beste bat uste dut, Edmond Maire-na, sindikalismoaren geroaz. Garrantzi ezberdinetako berri hauek ene memorian gelditu dira. Senditzen nintzen galdua, la-

nerako gogorik gabe. Beste garagardo bat galdegin nuen eta anartean zerbitzatu aitzin berriz egunkaria hartu nuen. Nazioarteko orrialde-tan, ez nuen kasurik eman lehen al-dian, hau agertu zen: Iruñan hilke-ta.

«Xabier Ibarategi militantea erahila izan da atzo arratsaldean, San Nicolas plazan, Iruñan, hiltzaileek moto batetan ziren. Lau errebolber tiro bildu ditu eta hil da sorospen zerbitzuak iritsi aitzin. Bigarren mailako figura zen baina euskal abertzaleek errespetua zor zioten. 1969an Frantzian iheslari sartuz gero jarduera militantea gelditu zuen. 1973an Carrero Blanco almirantea, Francoren ordaina izendatua izan zena, hil zenean kalapita bortitzak sortu ziren abertzaleen

artean. Valery Giscard D'Estaingek beste euskaldun batzuei bezala, Xabier Ibarategiri iheslari estatutua kendu zion, erabaki honek frogatzen omen zuelako demokrazia berriez sortu zela Espainian. Jakinean diren jendarteetan, hilketa honen ardura, eta beste batzuen jartzen da askatasun talde antiterroristen gain. Gaizkile talde hauek Espainiako barne Ministeritzak jarraitzen zituena azkarki sustengatzen.

* * *

Egiazki ez dut errekurtsio batzordea uzteko erabakia hartu. Orduan justiziako oporrak iraila arte irauten zuten. Larrazkenean ene gutuna bidali nuen nire demisioa aurkeztuz sobera gogoetarik egin gabe. Ez nintzen joan Georges Dreyfus

agurtzera. Laster erretreta hartu zuen. Lanean segitu nuen auzibide sailean, baina urte baten buruan, berriz aspertu nintzen hainbeste arrazonamendu eta indar erabiltzeaz debaldetan eta ere ene lankideen izaeraz, baita Palais-Royaleko baratzte ederretaz. Lau urte bete nituen eta libro nintzen lekuz aldatzeko. Eskatu nuen administrazio aktiboan lan egitea. Ez naiz sekulan berriz itzuli Estatuko Kontseilura.

Hamar urteren buruan, bidai profesional bat egin nuen Euskal Herrira. Opor egun batzu hartu nituen, joan nintzen Loiola eta Zestoako haraneraino. Mendi apaletako paisaia da, haran artetik ur ilunak ixurtzen ziren eta bideetan gaindi lantegi utziak ageri ziren, baita ere bainu etxe hutsak.

Xabier Ibarategi Zestoako hilerrian ehortzia da. Hilobia lorez estalia zen. Ikusi dut zein baserri-takoa zen. Atearen gainean euskarazko hitzak lerrokatuak dira haren engaiamendua ohartarazteko.

Oroituz hiletzeko zaintzaile zaharrak irakatsi zidana *zurrunbidea* egin dut etxetik hilobiraino. Baina bide bat baino gehiago bazen eta ez dakit zuzena hartu nuenez.

* * *

Hogeitamar urte iragan dira. Ene gizon bizia eraman dut. Ene zorra ordaindu dut. Ibarategiren oroitzapenak ez nau sekulan utzi bakean. Ez da egun bat iragan haren aurpegia ikusi gabe gure aitzinean zutik, *Verrerie* karrikan, haren boz

idorra entzun gabe, gure hizkuntza mintzo zuen eta kondenatu gaitu. Maite nintuen jende ainitz hil dira eta haien itxurak galdu ditut, nahiz eta indarrak egin, ene memoriatik ezabatu dira. Xabier Ibarategirena gelditu da hartua betierreko izotzetan. Hutsegiteak maitasunak ez dituen ahalak ditu.

Ez dakit bidai luze hau nola bururatuko den. Ibarategi hor zen abokata zin egin dudalarik, berriz itzuli naizelarik pixkat galdua Pariseko dei korteko lehen auzitegi-
ra, zuzenbidean itzuli luze bat egin ondoren. Ene lankideak, eskoleetatik berriki ateratuak, nire ber adi-
na zuten Ibarategi ene aurrean aurkeztu zenean errekurtsioetako batzordean. Hor zen lehen aldian abokata bezala mintzatu naizela-

rik, eta gero auzi guzietan irabazi edo galdu jardun naizelarik. Ene koldarkeriak edo ipurdi milikatze-ko gogoak auzietako tratuetara eramaten ninduen aldi guztietan, epaileen aurrean gibelka eginez, hor zen ene bizkarrean, animatuz ozenki mintzatzeko, ez oparirik egiteko, nik borrokatzeko gogoaz ez dudalako. Hor izanen da ere ene arropa beltza altxatuko dudalarik isilik egonez hainbeste hitz erran ondoren. Agian utziko nau bakarrik hiltzen eta beste munduan elkar atxemanen dugulakoan nago.

EGUNERO IRAKURTZEN DELAKO

BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ezkerrez.*
9. Karlos Linazasoro: *Apenas.*

10. *Iragana gero eta handiagoa da.*
11. Fito Rodriguez: *Biktimari agurka.*
12. Txomin Peillen: *Jan Dabrowski.*
13. Mikel Ibareguren: *Bide batez esanda.*
14. Antonio Casado da Rocha: *Islandiera ikasten.*
15. Txomin Peillen: *Nina Waita. Arupu baten itzalean.*
16. François Sureau: *François Sureau zurrunbidea.*